

2/2018 AKTA
NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEN FEDERAZIOAREN BATZORDE BETEARAZLEAK
MARTXOAREN 13an EGINDAKO BILERA

BERTARATUAK:

PRESIDENTEA:

Pablo Azcona Molinet jn., *Lodosako alkatea.*

1. PRESIDENTEORDEA:

Raquel Garbayo Berdonces and., *Cintruénigoko alkatea.*

2. PRESIDENTEORDEA:

Jesús M^a Rodríguez Gómez jn., *Ribaforadako alkatea.*

BATZORDEKIDEAK:

Cruz Moriones Uriz jn., *Ustaizeko Kontzejuko burua.*
Nieves Recalde Zaratiegui and., *Etxagueko Kontzejuko burua.*

Arturo Goldaracena Asa jn., *Tafallako alkatea.*

Alfonso Etxeberria Goñi jn., *Eguesibarko alkatea.*

Yolanda González García and., *Vianako alkatea.*

D. Ángel Obanos Galar, *Artikako Kontzejuko burua.*

Luis Alfonso Potestad Tellechea jn., *Aurizko alkatea.*

María Vicenta Goñi Azanza and., *Gesalazko alkatea.*

Ezequiel Martín Muxika jn., *Atezko alkatea.*

Mario Fabo Calero jn., *Martzillako alkatea.*

Karmele Marañoñ Chasco and., *Arbizuko alkatea.*

Javier Albizu Sanz jn., *Artazuko alkatea.*

Ezin etorria adierazi dute:

Ur Algueró Chivite jn., *Aresoko alkatea.*

Lucía Echegoyen Ojer and., *Zangoza Eskualdeko Mankomunitateko presidentea.*

Joseba Asirón Saez jn., *Iruñeko alkatea.*

Eneko Larrarte Huguet jn., *Tuterako alkatea.*

IDAZKARIA:

Berta Enrique Cornago and.

Iruñean, bi mila eta hemezortziko martxoaren hamahiruan, arratsaldeko bostetan, bigarren deialdian, aldamenean adierazitakoak bildu dira Nafarroako Udalen eta Kontzejuen egoitzan (Tutera kalea, 20, 3. solairua, Iruña), Batzorde Betearazleko kideak baitira. Bilkuraren buru Pablo Azcona Molinet jn. aritu da, eta idazkari, berriz, Berta Enrique Cornago and. Hona hemen

GAI-ZERRENDAA

- 1.-Aurreko bilkuraren akta onestea.
- 2.-Informazioa sektoreko batzordeei eta kontseiluei buruz.
- 3.-NUKFri atxikitzea.
- 4.-ANIMSArekin inbentarioak ezartzeko izenpetutako hitzarmenaren segimendu txostena.
- 5.-Presidentearen informazioa.
- 6.-Galde-eskeak.

1. PUNTUA. Aurreko bilkuraren akta onestea

Aurreko bilkuraren aktaren kopia igorrita deialdiarekin batera, aldeztu aurretik irakurri beharrik gabe, presidentek galdetu du Batzorde Betearazleko inork oharrik duen haren inguruan.

Inork ez du oharrik egin.

Bertaratutakoen gehiengoarekin,

ERABAKI DA:

2018ko martxoaren 13an egin bilkuraren akta onestea.

2. PUNTUA. Informazioa sektoreko batzordeei eta kontseiluei buruz.

Honako informazio hau eman da egindako batzorde eta kontseilu sektorialen gainean:

- **Eskolatzeko Batzordea (2018/02/13).**Zozketa egin zen hurrenkera alfabetikoa zehazteko ikaspostuen esleipenean eskolatzeko prozesuetarako. Emaitzaren arabera, Gonzalez abizenetik hasiko da. Ikastetxea salbuesenez aldatzeko eskaerak aztertu ziren.
- **Nafarroako Adinekoen Kontseilua (2018/02/15).**Informazio saioa, Nafarroan mendekotasunari arreta emateko sistemaren egoerari buruz, komunikabideetan agertutako datuak eratzeko.
- **Nafarroako Eskola Kontseilua (2018/02/23).**Jakinarazi zen DBHko institutu bat eratuko dela Orkoien eta aurtengo Udaberriko jardunaldiak egingen direla.
- **Kontratazio Publikoaren Batzordea (2018/02/23).**Eredu estandar bat aurkeztu zen prezioaren irizpidea baloratzeko eta horretarako eraturako taldeak prestatutako ingurumen klausulen berri eman zen.
- **EUPFren Lurralde Kontseilua (2018/02/27).**Haren xedea izan zen superabita inbertitu ahal izateko onetsi behar ziren neurriak lantzea. Printzipioz, inbertsioen xedek handitu gogo dira.
- **Nafarroako Hondakinak Kudeatzeko Plan Integratuaren Jarraipen Batzordea (2018/03/06).**Jakinarazi zen koordinazio talde bat sortu behar zela Hondakinei buruzko Foru Legea martxan jartzeko, eta Hondakinak Prebenitzeko bulegoa aurkeztu zen.
- **Gardentasun Kontseilua. (2018/06/12).**Zenbait erreklamazio ebatzi ziren.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

3. PUNTUA. NUKFri atxikitzea

Presidenteak azaldu du Arrarasko Kontzejuak eskatu duela NUKFri atxikitzea eta, Estatutuetan aurreikusitakoari jarraikiz, aintzat hartzen dela eskaera hori.

ERABAKI DA:

Aintzat hartzea Arrarasko Kontzejuaren eskaera, zeina NUKFko kide bihurtzen baita bilkuraren egunetik aurrerako ondorioekin.

4. PUNTUA. ANIMSArekin inbentarioak ezartzeko izenpetutako hitzarmenaren segimendu txostena.

Presidenteak azaldu du nola ezarri den inbentarioaren aplikazio informatikoa NUKFren eta ANIMSaren artean izenpetutako hitzarmenaren babesean.

Gogora ekarri du NUKFk konpromisoa hartu zuela, hitzarmen horren barnean, laguntzen deialdia egiteko, aplikazioa ezartzearen kostuak kendu edo murrizteko urtebeteko epean, 2016ko urriaren 1etik aurrera hasita, hura ezartzea erabakitzen zuten toki entitateei.

Deialdiarekin batera igorri dokumentazioa jasotzen den bezala, ANIMSaren aplikazioa ezartzearen eta martxan jartzearen kostuak izan zituen xede laguntzak.

Hitzarmenak ezartzen zuen NUKFren ekarpena 15.000 eurokoa izanen zela. Behin deialdia itxita, 54 eskaera aurkeztu ziren; nolahi ere, 9 entitatek uko egin dute, nor bere arrazoiengatik, eta beste bostetan ezin izan da ezarri, haiei egotzi ezin zaizkien arrazoiengatik.

Beraz, momentuz ez dira 15.000 euroak aplikatu. Gastua txikiagoa izan da, 10.601,80 eurokoa hain zuzen ere. Gelditzen den saldoa aplikatzeko irizpideak finkatzearen, jakinarazi da hitzarmenean aurreikusitako segimendu batzordea bilduko dela hemendik gutxira.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

5. PUNTUA.- Presidentearen informazioa

Presidenteak gai hauei buruzko informazioa eman du:

- Martxoaren 5ean kontu-hartzaile batzuekin egin zuen bilera eta helarazi zioten Toki Administrazioaren Mapa Berrantolatzeako aurreproiektuaz proposatzeko zutena.
- Martxoaren 6an bilkura egin zuen Osasun Publikoko Departamentuko zenbait teknikarirekin, non zahartze aktiboaren programaren barneko laguntzen deialdiaren berri eman baitzioten. Landa Garapeneko Departamentuak eginen du deialdi hori, eta 21 Agendekin lotuko da.
- Jardunaldi bat egin gogo da datuak babesteko Europak emandako araudi berriari dagokionez, toki administrazioan norainoko irismena izanen duen ezagutarazteko.
- Bilkura Mugigarritasun Jasangarriaren Plan Zuzentzailea eginen duen enpresarekin.
- Bilkura Nasertic enpresarekin, zakurrak DNaren bidez identifikatzeko zerbitzuari buruz, zenbait udalek interesa izan baitezakete horretan.
- Bilkura Albaitarien Elkargoko kideekin, zakurrak DNaren bidez identifikatzeko sistema horri buruz.

Presidenteak azaldu du Animalien Babesari buruzko Foru Legea tramitatzen ari dela eta agian gai hori aztertzen ahal dela, udalen modu bakarra baita gorozkiak jasotzen ez dituztenak zehatzeko.

Gai honen inguruan debate txiki bat piztu da, zehazteko egokia den edo ez identifikazio sistema hori eskatzea, zeren, ziur aski, garestia izanen baita zakurren jabeentzat eta kontuan hartu behar baita horietako askok betetzen dutela bete beharrekoa. Bestelako aukerak aztertu dira, hala nola, sentsibilizazio kanpainak eta abar.

- Hitzarmena La Caixarekin. Aditzera eman da berretsi dela aurtengo ekarpena 90.000 eurokoa izanen dela berriz.
- Bilkura Ogasunarekin martxoaren 12an, gainbalioak lantzeko, zehazki, berriki emandako epai batzuk aztertzeko.
- Bilkura bat La Caixa fundazioaren Plan Estrategikoaren barnean.
- Bilkura instituzional bat Kontuen Ganberako buruarekin.
- Aldi baterako kontratazioa egin da, administrazio-laguntzailearen kategoriarekin, Maria Jesús Eugui ordezteko haren eritasun bajagatik.
- Toki Araubideko Foru Batzordearen hurrengo bilkuran, txostena egingen zaie bi proiektu arauemaileri: Erabilera publikoko igerilekuei buruzko Foru Dekretuaren proiektua eta Ingurumen Esku-harteari buruzko Foru Legearen proiektua.

Igerilekuen dekretuaz bezainbatean, presidenteak adierazi du denei igorri zitzaizela, eta, beraz, ekarpenak aurkezten ahal direla txostena egiterakoan kontuan izateko.

Zenbaitek, hitza hartzean, mantentze-lanetako eta garbiketako langileei eskatzen zaizkien titulazio berriak aipatu dituzte, bai eta arazteko eskatzen diren baldintza batzuk ere, gehiegizkotzat jo direnak, eta aparteko toki bat izateko eskakizuna, bertan botikina edukitzeko, eta abar. Beste puntu bat adina izan da, proiektuan ezartzen baita 12 urtetik beherakoek heldu batek lagunduta sartu beharra dutela igerilekuan. Gai honen inguruan, Batzorde Betearazleko kide batzuek adierazi dute eskakizun hori bete ezinezkoa dela. Horren harira, Albizu jaunari iruditzen zaio kontu hori funtsezkoa dela txostenera begira.

Garbayo andreak uste du eskatu beharko litzatekeela dekretu horrekin batera laguntza ekonomikoak eman daitezela, eskatzen diren egokitzapenak egin ahal izateko.

Presidenteak esan du adierazitakoa jaso eta aintzat hartuko dela txostena egiteko orduan Toki Araubideko Foru Batzordean.

ERABAKI DA:

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

6. PUNTUA- Galde-eskeak

Garbayo andreak galdetu du zergatik aipatzen diren eskualdeak, eta ez merindadeak, Concejoko azken txostenean.

Presidente jaunak adierazi du ez dakiela, baina kritika onak jaso dituela horren gainean.

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, presidente jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko arratsaldeko zazpiak direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut, eta presidentearekin sinatu dut.

PRESIDENTEAREN ONIRITZIA,

IDAZKARIA,

Pablo Azcona Molinet jn.

Berta Enrique Cornago and.